



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Javier Bereau Miquelarena
Mikel Gereka Zelaia
Izaskun Altxu Ariztegi

2019ko azaroaren 12an, 17:00ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M^a Jose Bereau Baleztana —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak gaia azaldu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak **aho batez** erabaki du aurreko bilkuretako aktak **onartzea**.

2. OIHAN ENKANTEA: ESLEIPENA.

Udalburuak gaia azaldu ondoren bozkatzera deitu du eta udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 4

Abstentzio 3

1.- Altxunea eta Asurdi-Maixtako parajeetako bi loteak Egurlan eta Maderas Larretari esleitzea (1. lotea Maderas Larretari eta 2. lotea Egurlani), haiek enkantean eskainitako prezioetan (1. lotea 19.000 eurotan eta 2. lotea 13.000 eurotan).

2.- 15 eguneko epea ematea esleipendunei lotearen aprobetxamendua arautuko duen kontratua sinatzeko.

3.- Akordioa interesatuei jakinaraztea.

3. AURTIZKO BESTEN DIRU LAGUNTZA.

Ikusita 2017 eta 2018ko bestetan egindako gastuak eta 2019ko besten aurrekontua aurkeztu dutela Aurtizko “Asociación Aurtiztarrak” elkarteak. Udalburuak gaia azaldu eta bozkatzera deitu du. Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 4

Abstentzio 3



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

1.- 2018ko bestetarako 2636,8 euroko diru laguntza onartzea aurkeztutako fakturak aztertuz eta partidaren limitera arte ordaintzea (1400 euro).

2.- 2019ko bestetarako 2524,17 euroko dirulaguntza onartzea (biztanleen kopuruaren arabera kalkulaturikoa).

3.- 2018, 2019 eta 2020ko ordainketa egin ahal izateko 2020ko aurrekontuetan partida bat gordetzea (aukera baldin badago), eta bestela atzeratutako festen ordainketa urte bat baino gehiagotan egitea, “Asociación Aurtiztarrak” elkartearekin hitz egin ondoren.

3.- Akordioa interesdunei jakinaraztea.

4. XEHETASUN AZTERLANA XABIER ALCHU.

Udalburuak gaia azaldu eta arkitektoen txostena aldekoa izanda, bozkatzera deitu du. Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 4

Abstentzio 3

1.- Xehetasun Azterlana behin behinean onartzea.

2.- Xehetasun Azterlana erakustaldi publikoan jarri 20 egunez, NAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

3.- Erakustaldi publikoa Diario de Noticias eta Diario de Navarra egunkarietan argitaratzea.

3.- Akordioa interesdunari eta aldameneko jabeai jakinaraztea.

5. ESKABIDEAK.

5.1.- Cristina Apezteguía Saldías andreak elizbideko zuloak konpontzeko eskaera aurkeztu du. Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 4



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Abstentzio 3

1.- 2020ko aurrekontuetan partida gordetzea konponketa horiek egiteko (horretarako aukera baldin badago).

2.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

5.2.- Periko Mindegia jaunak, kanposantuan bi tokien gainean aterpetxoak egiteko eskaera aurkeztu du. Udalbatzak hurrengoak erabaki du:

Alde 4

Abstentzio 3

1.- Kanposantua arautzen duen erregelamenduaren arabera hori ez dela baimendutako eraikuntza bat, eta beraz, ezin dela eskaera onartu.

2.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

5.3.- José Ramón Bazterrica Mutuberria, 1. poligonoko 168. partzelan egurra uzteko eskaera aurkeztu du. Udalbatzak hurrengoak erabaki du:

Alde 4

Abstentzio 3

1.- Komunalaren erabilera hori (egurra pilatzea) Bazterrica jaunari baimentzea.

2.- Lurzatiaren egoera zaindu beharko dela eta interesdunaren gain izanen direla erabilera hori ekar ditzakeen kalteak konpontzea.

3.- Erabileraren baimen honek ez duela jabegoaren aldaketarik ekartzen, horren jabea Udala izaten jarraituko duelarik eta beste edozein erabilerara zuzentzea komenigarria ikusten badu, eskubide hori bere gain mantentzen duela betiere interesdunari aldaketaren inguruan iritzia agertzeko epea emanaz.

4.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

5.4.- Rosa Ayestarán Legasa andreak “paso canadiense”-a egiteko eskaera aurkeztu du. Udalbatzak hurrengo erabaki du:

Alde 4

Abstentzio 3

1.- 2020ko aurrekontuetan partida gordetzea moldaketa horiek egiteko (horretarako aukera baldin badago) Landa Garapeneko Sailak onartzen dituen diru laguntzez probestuta.

2.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

5.5.- Uholdeak riadas 2019 laguntza taldeak Tafalla inguruko kalteak kopontzen laguntzeko eskaera aurkeztu du. Udalbatzak hurrengo erabaki du:

Alde 4

Abstentzio 3

1.- Ez dagoela partida nahikorik eta ezin izanen dela diruz lagundu.

2.- Bandoa herrian zehar hedatzea bizilagunen batek laguntza emateko aukera izan dezan.

3.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

5.6.- Mikel Gereka Zelaia jaunak bere etxera sartzen diren kamioiek errazagoa izateko, bihurgunean dagoen farola lekuz aldatzeko eskaera aurkeztu du. Udalbatzak hurrengo erabaki du:

Alde 4

Abstentzio 3

1.- Baimena ematea farola lekuz aldatzeko, zinegotziren batekin adosten den lekura.

2.- Aldaketaren kostuak bere gain hartu beharko dituela.

3.- Akordioa interesdunari jakinaraztea



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

6. MOZIOAK.

Udalbatzak aho batez erabaki du Nafarroako Ehiza Federazioak aurkeztu duen mozioa aztertzea eta eztabaidatzea Nafarroako Ehiza Federazioak aurkeztu duen mozioa. Irkaurri ondoren Udalbatzak hurrengo erabaki du:

Alde 1

Abstentzio 6

1.- Ehiza Nafarroan erro social, kultural eta ekonomiko handia duen jarduera da eta horregatik merezi du laguntza, babesa eta sustapena izatea Nafarroako botere publikoengandik biodibertsitatea eta landa munduko garapen ekonomikoa zaintzen laguntzen baitu.

2.- Udalbatza honek konpromisoa hartzen du Ehiza babesteko eta gobernu Autonomikoa eta Estatukoa premiatzen ditu bere jarduerak zaintzeko landa munduko garapen ekonomikoarendako motorra eta ingurumen zainketarendako tresna baitira.

3.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

7. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (29/2019. ebazpenetik 37/2019. ebazpenera) eta Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

8. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da: Landa Garapeneko, Ingurugiroko eta Toki Administrazio Sailak emandako oihan aprobetxamenduak —José Martín Saldías Alchu, Isabel Damboriena Arrechea eta Ainara Mindeguía Baleztena—; Jabegoaren Erregistroak, Udalari, aldameneko den heinean egiten dion jakinarazpena; Abere Ekoizpenaren Sekzioak Abere Ustiategiaren Erregistroan egindako alta—María Jesús Etulain Arrechea— Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Sailak Bake Epaitegiak kudeatzeagatik ematen duen diru-laguntza; Landa Aberastasuneko Sailarekin onetsitako Balorazio Ponentziaren jakinarazpena; Kantauriar Isurialdeko Konfederazioak Zurtzai errekan ezker aldeko pareta moldatzeko emandako baimena; NUKF-ek genero indarkeriaren



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

harira Espainiar Gobernuak egin duen diru-laguntza gestionatzeko Euala enpresarekin egindako hitzarmena.

10. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).

Ez dago galde-eskerik.

Eta bertzerik ezean, 17:45ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.